

9

OLARIZU

MENDI-HEGALEKO LARRETIK PASEATZEN

Gasteizko herritarrek ondo ezagutu eta maite dute Olarizu, aspalditik elkarrekin topo egiteko eta herri-erromeriak ospatzeko lekua baita.

Larre egindako zelaiek, muinoak eta hiria hurbileko herrieekin eta Gasteizko mendiekin lotzen dituzten bidexka ugariak osatzen dute gunea, baina horiez gain, gaur egun badira beste eremu eta ekipamendu batzuk, hala nola, baratze ekologikoak, lorategi botanikoa eta Olarizuko etxaldea; horiek guztiek erakargarriago bihurtu dute eremua.





INTERESGUNEAK



1 Olarizuko lorategi botanikoa

Olarizuko lorategi botanikoko landare bizien bilduma nagusia Europako basoen zuhaitzia da. Eremu horrek 30 hektarea ditu, eta 523 zuhaitz, zuhaixka, sasitza eta landare igokarientzako egokitu da; horiek guztiak, Europa kontinenteko baso nagusietako landaretza-mota garrantzitsuenak dira, esaterako, artelatzen basoak, sabina-basoak, hariztiak, izeidiak etab.

Olarizuko aintzira (Europako ur-habitategin loturako landareak ditu), orkideen eta geofitoen zelaia eta Olarizuko behatokia ere han dira, eta arabar muinoetan eta kareharrizko harkaitzetan berezkoak diren landareak dituzte.

2 Olarizuko baratzeak

1998. urtean egokitu zituzten zenbait nekazaritza-finketan eta hondakinez okupaturako zelaietan. Gaur egun, denontzako eremua da, eta baratzezaintza ekologikoarekin, lorezaintzarekin eta frutagintzarekin lotutako zenbait jarduera gauzatzen dira. Baratzetarako eremua, fruta-arboletarako eremua, baso-hazitegia, zenbait negutegi, udalerriko basoen zuhaitzia, putzua eta eraikin bioklimatikoa daude.



3 Olarizuko muinoa

709 metroko garaiera du. Gailurrean, hormigoi armatuko gurutze handia nabarmentzen da; 10 metroko garaiera du. Hiriaren eta lautadaren bista panoramiko ederra eskaintzen du. Gailurretik hurbil, Kutzemendi aztarnategia dago; Burdin Aro osoan eta erromanizazioaren hasiera



arte okupatuta egon zen herrixka baten arkeologia-aztarnak ditu.

4 Olarizuko etxaldea

1727. urtekoa da. Jatorrian, Olarizuko larreen bazkatzen ziren herri-abereak gordetzeko erabiltzen zen. Abere horiek hiriko harategietara eramaten zituzten.

Ondoren abandonatu zuten, eta 1987. urtera arte biltoki moduan erabili zuten. Urte horretan hasi ziren zaharberritzen.

1995ean, Vitoria-Gasteizko Udaleko Ingurugiro Gaietarako Ikastegiaren egoitza eta Eratzun Berdearen heziketa-eta informazio-ekipamendu nagusietako bat bihurtu zuten.

Liburutegia, erakusketa-azoka, hitzaldietarako aretoa eta beste zenbait

gela ditu. Bestalde, eguzki-panelak eta biomasako galdara ditu. Horrez gain, Olarizuko lorategi botanikoko landareen material genetikoaren biltegia han dago.

5 Betoñu Haitzeko basabidea

Antzina, bide horrek Arabako Errioxa eta Gasteiz lotzen zituen; horretarako, Gasteizko mendiak zeharkatzen zituen Betoñu haitzeko mendatetik. Ibilbide garrantzitsua izan zen merkataritzarako eta abereak, ardoa eta beste nekazaritza-produktu batuk trukatzeko. Gaur egun, paseatzeko ibilbide berde moduan egokituta dago; oraindik ere zenbait tarte harriztatu ikus ditzakegu; izan ere, zenbait mendez handik gurdiak beteta igarotzen ziren.

BITXITASUNAK

Lorategi botanikoko **germoplasma bankua** etxaldean dago, eta natura-populazioetatik datozen haziak zaintzeko lanak egiten ditu, desagertzeko arriskuan diren espezie interesgarri batzuk bizirik iraunaraztearren. Ondoren, espezie horiek berriz ingurumenean sartzen dira, narriatutako habitatak lehengoratzeko, errazago eraso daitezkeen populazioak indartzeko etab.



ZER EGIN DAITEKE

Lorategi botanikoan egin daitezkeen jarduerak

Lorategi botanikorako bisita gidatua egin daiteke eta, oro har, denontzako bisitak dira. Horrez gain, ikasleentzat ere zenbait jarduera egiten dira, germoplasma bankuak zer lan egiten duen azaltzeko eta basoen bidez Europatik bidaiatzeko.

Olarizuko baratzeetan egin daitezkeen jarduerak

Zenbait jarduera egiten dira baratzezaintzari, loreontzietako lorezaintzari, frutagintzari etab. i buruz ikasleentzat zein guztiontzat.

Olarizuko etxaldean egin daitezkeen jarduerak

Energia berriztagarriei buruzko tailerrak ikasleentzat etab. Etxaldeko baliabideak erabiliko dituzte: agiriaren funtsa, energia fotovoltaikoa sortzeko eguzki-panelak etab.

INFORMAZIO PRAKTIKOA

OLARIZUKO BARATZEAK

- 09:00 - 17:45 (urriaren 1etik martxoaren 31ra).
- 08:30 - 21:00 (apirilaren 1etik irailaren 30ea).

ETXALDEA

CEA. Ingurugiro Gaietarako Ikastegia. Olarizuko etxaldea.

01006 Vitoria-Gasteiz. Telefono-zenbakia: 945 16 26 96.

- 8:00etik 15:00etara.

